

BEREHALAKO ONDORIOAK ORGANISMOAN

Edan eta minutu gutxitara, ondorio batzuk nabaritzen hasiko gara; ondorio horiek edandako kopuruaren eta pertsona bakoitzaren ezaugarrien arabera izango dira.

Denboran agertzeko hurrenkera kontuan hartuta eta organismoko alkohol-kontzentrazioari dagokionez, ondorioak hauek izango lirateke:

Deshinibitza

Euforia

Erlaxazioa

Sozialitatearen gorakada

Hitz egiteko zailtasuna

Ideiak lotzeko zailtasuna

Deskoordinazio motorra

eta, azkenik, Intoxikazio akutua

Odoleko alkohol-kontzentrazioa, alegia, alkoholemia-tasa, litroko 3 gramo alkohol edo gehiago denean, apatia eta logura, koma edo heriotza ere ager daitezke, arnas-zentroen eta zentro basomotorren paralisiarengatik.

Alkoholaren ondorioak kontsumitutako alkohol-kopuruaren arabera dira, baina badaude horiek bizkortu edo larriagotu ditzaketen egoerak ere:

Adina: Gazteak alkoholaren ondorioen aurrean ahulagoak dira (garun heldugabea) (adingabeak)

Pisua eta sexua: Eragin handiagoa du pisu gutxiko pertsonengan (emakumeak)

Osasun-egoera: Gaixotasunak, nekea edo estresa direla-eta kontsumitzen dutenak alkoholaren ondorioen aurrean ahulagoak dira.

Zenbat eta zein azkar hartzen den: Zenbat eta alkohol gehiago denbora laburragoan, intoxikatze aukera gehiago (betekada)

Jatekoarekin konbinatzea: Sabela beterik dugunean (hobeto koipeak), alkohola geldoago xurgatzen da. Fruitu lehorrak, patata frijituak eta abar intoxikazioa geldotzen dute.

Edari karbonikoekin konbinatzeak: (tonikak, kolak, etab.) bizkortu egiten du intoxikazioa.

Beste substantzia batzuekin konbinatzea: arriskua alkohola beste substantzia batzuekin nahastean.

Drogek gure gorputzean eta buruan zenbait ondorio eragiten dituzte:

DEPRESOREAK:

Funtzionamendu organikoaren eta psikikoaren maila arruntak gutxitzen dituzte, eta horrek esan nahi du funtzio guztiak geldoagoak bilakatzen direla: alkohola, opiazeoak (heroina, morfina, metadona), nerbioentzako pilulak (lasaigarriak, hipnotikoak eta barbiturikoak), GHBa (estasi likidoa).

ESTIMULATZAILEAK:

Funtzionamendu organikoa eta psikikoa bizkortzen dute: kokaina, anfetamina, speeda, efedrina (landare-estasia) eta, neurri txikiagoan, kafeina eta tabakoa.

HALUZINOGENOAK

Kanpoko mundua antzemateko modua aldatzen dute: azidoa (LSDa), ondoak, ketamina, inhalatzaileak, kalamua.

GOGORATU: Bi substantzia depresore (alkohola+barbiturikoak) edo estimulatzaile (kokaina+estasia) kontsumitzeak ondorio SINERGIKOAK du: ondorioak ez dira gehitzen, BIDERKATU egiten dira; beraz, gaindosiaren arriskua erraz handitzen da.

ALKOHOLA ETA BESTE DROGA BATZUK NAHASTEAK DAKARREN ARRISKUA

KALAMUA

Dosi txikietan, goberna daiteke; dosi handietan, zera gerta daiteke: gorakoak, zorabioak, aho lehorra, paranoia handitzea. Konbinaziorik txarrena da gidatzeko edo edozein jarduera konplexu egiteko.

ANFETAMINAK - SPEEDA

Alkoholaren ondorioen sentsazioa murrizten du (kontrako ondorioen areagotzea, izugarritzko biharamunarekin). Inhibizioen galera eta agresibitatearen areagotzea. Prebentziorik gabeko sexu-harremanak izateko arriskua.

ESTASIA

Deshidratazio-arriskuaren areagotzea. Izu-atakeen eta beroaldien arrisku handiagoa. Beherakada handiagoa da. Alkohola estasiagatiko azken heriotzekin lotuta dago.

KOKAINA

Kokaina + alkohola = kokaetilenoa (bien ondorioak indargabetzen dira).

Gehiago hartzeko irrika: arriskuak areagotzen dira. Bihotzaren bizkortze bizia eta garuneko odoljariorako arriskua.

BARBITURIKO LASAIGARRIAK

Sinergia edo ondorio depresiboak indartzeko arriskua: bihotz-sistemaren geldotzea eta arnasketaren moteltzea, konorte-galera eta heriotza-arrisku larria.

HEROINA

Ondorio depresoreen indartzea. Arnasketaren eta bihotz-erritmoaren moteltzea. Heriotza-arrisku larria.

KETAMINA

Goragaleak eta gorakoak gerta daitezke. Konorte-galerarako aukerak areagotzea. Bihotz-gelditzearen edo arnasketaren moteltzearen areagotzea. Gibelego kaltea eta bihotz-hutsegitea areagotu daiteke.

BIHARAMUNA

Alkohol gehiegi kontsumitu ondoko orduetako koadro klinikoa da. Nerbio-sistema begetatiboa, sistema kardiobaskularra eta odol-sistema daude eraginpean, bai eta digestio-sistema eta sistema neuromuskularra ere. Sintomak hauek izan daitezke:

- + Zefalea edo buruko mina
- + Goragaleak eta gorakoak, urdail-mukosaren hanturagatik
- + Beherakoa hestearen narriaduragatik
- + Egardia eta aho likatsua
- + Bertigoak
- + Muskuluen gogortzea